

## HEZIKETA FISIKOKO Ebaluazio irizpideak 2. zikloa

### **1.-Norberaren ezagutza eta kontrola**

- ✓ Gorputzaren ezagutza sakontzea.
- ✓ Lateralitatea sendotzea.
- ✓ Oreka egoera konplexuak bizitzea.
- ✓ Koordinazioa eta gorputz mugimendu aukerak esperimentatzea (jolastea).
- ✓ Zentzumen ezberdinen bidez jasotako estimuluei egokitzen diren erantzun egokiak ematea.
- ✓ Espazio eta denboraren egituraketa garatzea.

### **2-Gorputz-adierazpena eta komunikazioa.**

- ✓ Erritmo-egitura bat erreproduzitzea gorputza edo tresnekin.
- ✓ Gorputzaren adierazpen-baliabideak erabiltzea ideiak eta sentimenduak komunikatzeko eta pertsonaiak eta istorioak antzezteko.

### **3-Jarduera fisikoa eta osasuna.**

- ✓ Jarduera fisikoak osasunerako duen balioa kontuan hartuta, jokabide aktiboa izatea.
- ✓ Gorputza zaintzeko jarrerak eta elikadura-ohiturak mantentzeko dagokienez, jokabide arduratsua izatea.
- ✓ Oinarrizko trebetasunen eredu nagusiak ondo koordinatzea
- ✓ Oinarrizko trebetasunak jolas jardueren praktikan egoki erabiltzea.
- ✓ Gorputza oreka egoera ezberdinetara egokitzea
- ✓ Gaitasun fisikoak jolas eta jokoen bidez bizitzea.
- ✓ Mugimendua espaziora eta bertan dauden elementu mugikorrei (pertsonak eta objektuak) egokitzea.
- ✓ Jarduera bakoitzaren helburuak lortzeko espazio elementuak erabiltzea.
- ✓ Jarduera bakoitzaren helburuak lortzeko denbora elementuak erabiltzea.
- ✓ Mugimen-arazoak estrategia errazak erabiliz konpontzea.
- ✓ Esfortzua erregulatzea eta dosifikatzea egin beharreko jardueraren exigentziaren arabera.
- ✓ Emaitzen ginetik, esfortzua jarduera fisikoaren oinarrizko balore moduan onartzea.

#### **4-Mugimen-kultura: aisialdia eta denbora librerako hezkuntza.**

- ✓ Jolas, jokoetan eta jardueretan parte hartzea eta gozatzea.
- ✓ Jolas , jokoen eta jardueren barne logika ulertzea, eta arauak betetzea.
- ✓ Ahalegina eta harremanak, emaitzaren gaineratik baloratzea
- ✓ Lagun guztiekin elkarrekintza positiboan jokatzeko, bakoitzaren izaera pertsonal eta gizarte izaera kontutan hartu gabe.
- ✓ Jolasa gozamenerako, harremanak egiteko eta aisialdi-denbora pasatzeko baliabide gisa artesa.
- ✓ Euskal Herriko betiko jolas, joko eta jarduerak ludikoak ezagutzea eta praktikatzeko.
- ✓ Euskal Herriko jarduerak eta kultur adierazpen tradizionalak ikertzea.